

## GOBERNU BATZARRA

2015. 01. 23

**Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita hiru, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

**Ibai Iriarte San Vicente**

**Zinegotziak:**

**Lore Agirre Zipitria**  
**Hasier de los Rios Soraluze.**

1.- Aurreko akta onartzea.

**Idazkaria:** 2.-Iñauteriak 2015eko jai egitaraua eta 225.000€tako aurrekontua onartzea.

**Jose Luis Unanue Ugalde** 3.-2015eko auzoetako dirulaguntzak onartzea.

**Kontuhartzaitzako Teknikaria:**

4.- Tolomendiri dirulaguntza.

**Paulino Alonso Eraso**

5.-Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan diru laguntza ematea.

6.- Tolosako N-1aren Ipar Loturan biribilgune bat eraikitzeke obren 6. ziurtagiria (704/14 faktura).

7.- Iurramendiko baratza parkeko bi erabiltzaileen eskaera urteko kuotaren zenbatekoa aldatzeko langabetuak izateagatik.

8.- 2015/91 Alkate Deketuaren kontu ematea.

9.- Tasen hobaria edo salbuespena.

10.- Gainbalioaren murrizketa.

11.- Udal Lankidetzak.- 2014. urteko udal diru laguntzen banatzeko proposamena.

12.- Nazioarteko lankidetzak.

13.- Bikarte elkarteak egin duen diru laguntzaren eskaera.

14.- Beotibar kaleko 3-2. eskubian izandako gertaerangatik faktura onartzea.

15.- Udal Gobernuaren adierazpena.

16.- 41 eta 43/2014 zenbakia duten faktura-zerrendak.

**1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko urtarrilaren 16an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.- Inauteriak 2015eko jai egitaraua eta 225.000€tako aurrekontua onartzea.**

Festa batzordeak proposatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Inauterietako behin betiko egitaraua eta gauzatu ahal izateko beharrezkoa den 225.000,00 euroko aurrekontua.

**BIGARREN.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Festa arduradunari.

**3.- 2015eko auzoetako dirulaguntzak onartzea.**

Berdintasuna, Gazteria, Festak, Partaidetza eta Kultura batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aurtengo auzoetako jaiak eta jarduerak sortutako gastuei aurre egiteko, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Honako dirulaguntza hauek ematea:

<b>Amarotz % 50</b> : Amaroeko Auzo Elkarteak *	12.923,50
<b>Amarotz % 50:</b> Amaroeko Auzo Elkarteak *	12.923,50
<b>San Esteban:</b> Tonttor San Esteban Auzokide Kultur Elkarteak *	5.477,00
<b>Berazubi</b> : Berazubiko Jai Batzordeak *	4.425,00

<b>Olarrain :</b> Lagun Artea Elkarteak *	1.357,00
<b>San Blas :</b> Emendek Arraun Elkarteak *	1.575,00
<b>Izaskun:</b> Otsabi Auzo Elkarteak *	4.425,00
<b>Larramendi:</b> Larramendi Bizirik Auzokideen Elkarteak *	4.425,00
<b>San Fermin Txiki :</b> *	1.556,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>49.087,00</b>

\* Ordezkarriak espedientean agertzen dira.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, eta Berdintasuna, Gazteria, Festak, Partaidetza eta Kultura departamentuari.

#### **4.- Tolomendiri dirulaguntza.**

Bi mila hamabiko urtarrilaren 25ean Tolosako Udalak eta Tolomendik lankidetzahitzarmena sinatu zuten Tolosako Azoka Tradizionalak elkarrekin gestionatzeko.

Hitzarmenaren arabera larunbatetako azoken jarraipena eta sutapena egiteagatik udalak diru kopuru bat emango dio eta KPIren arabera egunertuko da. Hori dela eta, bi mila eta hamalauko urteari dagokiona 1.205,40 eurotako da.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez, alkateak emandako ahalmenez baliatuta eta azoken departamentuak egin duen proposamenarekin bat etorri,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENEA.**- Bi mila eta hamalauko urteari dagokion diru kopurua (1.205,40) euroko diru kopurua ematea, larunbatetako azoken jarraipena eta sutapena egiteagatik.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, azoka departamentuari eta Tolomendiri.

#### **5.- Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan diru laguntza ematea.**

Lanbideren zuzendari nagusiaren 2013ko urriaren 30eko Ebazpenak ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEKO deialdia onartu zuen.

Hori dela eta, 2014ko maiatzaren 16an, Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek hitzarmena sinatu zuten "Langunea Tolosaldea 2014" proiektua aurrera eramateko.

2014ko irailaren 26ko 2014/1231 Alkate Dekretu bidez, Udalak erabaki zuen Lanbideri dirulaguntza eskatzea.

Ilido horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute "Langunea Tolosaldean 2014" programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatuzko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Ondoren agertzen diren enpreseei diru laguntza hauek ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenetan jarritakoak betetzen badituzte:

Enpresa	Kontratu kopurua	Kontratu iraupena	Lanaldia	Langilea	Dirulaguntza
Construcciones Metalicas Eldu.	1	3 hilabete	Osoa	M.T.P.	3.000,00
M. Jesús Labayen Maiz	1	3 hilabete	%50	B.F.D.D.	1.500,00

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Enplegu eta Garapen ekonomikoa departamentuari.

### **6.- Tolosako N-1aren Ipar Loturan biribilgune bat eraikitzeko obren 6. ziurtagiria (704/14 faktura).**

Bi mila eta hamahiruko azaroaren 29an, sinaturiko 2013/1658 zenbakidun alkate dekretu bidez, Construcciones Amenabar, S.A., enpresari esleitu zitzaion Tolosako N-1aren Ipar loturan biribilgune bat eraikitzeko obren kontratua, 411.588,62€. izen zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila eta hamabosteko urtarrilaren 19an, Construcciones Amenabar, S.A., enpresak 6. ziurtagiria aurkeztu du, 150.868,08 €-koa.

Ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Onartzea Tolosako N-laren Ipar lotura biribilgune bat eraikitzeko seigarren ziurtagiria (fak zkia: 704/14), 150.868,08€koa (BEZa barne).

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Construcciones Amenabar, S.A., enpresari eta Kontuhartailtzari.

**7.- Iurramendiko baratza parkeko bi erabiltzaileen eskaera urteko kuotaren zenbatekoa aldatzeko langabetuak izateagatik.**

Baratza Parkearen erabiltzaileek urtean behin tasa bat ordaindu behar dute. Tasen zenbatekoak, 2014an, hauek izan dira:

<b>Kuota</b>	<b>Hilean €</b>	<b>Urtean</b>
Langabetua	5,03	60,30
Elbarria	5,03	60,30
Arrunta	10,05	120,60

Irailaren 10ean erabiltzaile guztiei ondorengo komunikatu zitzaien: epe laburrean tasa kobratu behar zela eta, langabetuek lanbideren ziurtagiria ekarri behar zutela, langabetuei dagokien zenbatekoa aplikatu ahal izateko. Ziurtagiri hau jasotzeko epe muga irailaren 29an jarri zen.

Ohar hau horrela komunikatu zen: Barazetako ohar taulan jarritako ohar baten bidez, korreo elektronikoz, korreo elektronikoa eman zigitenei, eta telefonoz, korreo elektronikoa eman ez zigitenei.

M. J. G. A. (15.919.909 E) eta A. G. A. (15.940.268 A) ez zuten epe honetan langabetu izatearen ziurtagiria ekarri eta hori dela eta, tasa arrunta kobratu zitzaien. Urtarrilaren 5ean, bi pertsona hauen ordezkaria udalera gerturatu zen, bi kasu hauetan langabetuei dagokien tasa aplikatzeko eskatuz. Bidalitako korreo elektronikoa ez zutela irakurri argudiatu zuen, bi pertsona hauen langabetu ziurtagiria ekarriz.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Epez kanpo aurkeztu den dokumentazioa aintzakotzat hartzea eta beraz, goian aipatutako langabetuei dagokien tasa kobratzea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri interesatuei, Kontuhartzailtzari eta Ingurumen Departamentuari jakinaraztea.

## **8.- 2015/91 Alkate Deketuaren kontu ematea.**

T.P.P.ei laguntza ekonomikoa (616,13) hilean luzatzeko 2015/91 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez onartu da. Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

## **9.- Tasen hobaria edo salbuespena.**

Gaia erabaki gabe geratu da.

## **10.- Gainbalioaren murrizketa.**

Bi mila hamalauko urtarrilaren 14ean, I. A. L.k, B. A. G.ren izenean, Soldadu kaleko 10-3 ezk. etxebizitza saltzeagatik likidatu zaion Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kopuruarekin (2.078,29 €) desadostasuna azaldu du.

B. A.k, bi mila hamalauko urriaren 3an, bere jabetzakoa zen Soldadu kalea 10-3 ezk. etxebizitza saldu zuen. Horren ondorioz, Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga likidatu zitzaion.

Aurkeztutako idatzian ondorengo azaltzen dute: etxebizitza berria altxa behar dutenez, eta horren gastuei aurre egiteko baliabideak ez dituzenez, saldu beharra izan duela. Salmenta balioa jartzeko, bizilagun bati eginiko tasazio balioa hartu zuela kontuan, balio katastrala baina txikiagoa. Zergaren balioa neurrigabea eta desproporzionatua dela iruditzen zaio eta zergaren zenbatekoa egokitzea eskatzen du.

Aipatutako zerga kalkulatzeko, lurraren balio katastrala hartzen da kontuan. Kasu honetan; 38.529,69 €. Kopuru horri, udalak legezko mugen barnean ezarritako koefizientea eta gehikuntza sortzen duten urteen kopurua biderkatzen zaizkio.

Era horretan, zergaren zenbatekoa areagotu egiten da terrenoaren erosketa eta transmisioaren artean iragandako urteen arabera (gehienez 20 urte), terrenoaren transmisioan benetan lortutako irabaziak kontuan hartu gabe.

Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren oinarri zergagarria zehazteko era, Foru Arauak ezarria, ez da ez presuntzio bat, ezta proba arau bat ere, balorazio arau bat baizik, aukera ematen duena kuantifikatzeko oinarri zergagarria metodo objetibo baten bidez.

Ondorioz, zergaren kalkulua ondo egin dago balio katastralarekin, eta ez tasatutako balioarekin.

Bestalde, hobaririk edo salbuespenik dagoen aztertu behar da.

Ordenantza fiskaletako 5.artikuluak zehazten ditu salbuespenak. Baina, bertan, ez dago inolako salbuespenik horrelako kasuetarako.

Hobariei dagokienez, 10. artikuluan azaltzen da hobaria. Baina, kasu honetan ere ez da aplikagarria.

Hori kontuan hartuz, eta ikusita Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioa ondo kalkulatu dagoela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ez aplikatzea inongo salbuespen edo hobaririk goian aipatuko gainbalioaren kitapenari.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

### **11.- Udal Lankidetzaren 2014. urteko udal diru laguntzen banatzeko proposamena.**

Bi mila eta hamalauko urriaren 10ean, Gobernu Batzarrek Udal Lankidetzaren programaren dirulaguntzak emateko oinarri erregutzaileak onartu zituen.

Osasun eta Gizarte zerbitzuen alorretan lan egiteagatik 39.200 €-tako kopurua banatzea onartu zuten eta Tolosako udalerrian Gizarte Zerbitzuen eta Osasun alorrean lan egiten duten taldeei ondoren aipatzen diren diru laguntza hauek ematea onartu ziren.

Beraz, Gobernu Batzar honek, Gizarte Politikak eta Osasuna batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorri, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ondorengo diru laguntzak onartzea:

<b>TALDEAK</b>	<b>KOPURUAK</b>
AECC MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA	<b>750,00</b>
AFAGI.- ALZHEIMER	<b>300,00</b>
AFESTTA.- SINDROME DE TOURETTE	<b>300,00</b>
AGIFES.- ADIMEN GAIXOTAUNA	<b>300,00</b>

ARTUBI (BEDAIO) 3. ADINEKOEN ELKARTEA	<b>500,00</b>
ASLEMEGI.- GIPUZKOAKO ORNO-MUINEKO KALTETUEN ELKARTEA	<b>370,00</b>
BETI GAZTEAK, AMAROTZEKO 3. ADINEKOEN ELK.	<b>1.000,00</b>
BETI IKASTEN ELKARTEA	<b>180,00</b>
CARITAS PARROQUIAL	<b>9.255,00</b>
CRUZ ROJA, 2 ESK. (Gizarte. Zerbitzuak +Osasuna)	<b>1.000,00</b>
DYA	<b>1.000,00</b>
ETXERAT	<b>750,00</b>
GAINDITZEN.- ASOC. PERSONAS SORDAS TOLOSALDEA.	<b>1.320,00</b>
HARIZPE.- JUBILATU ETA PENTSIONISTEN ELK.	<b>6.160,00</b>
HIRUKIDE/GAINBERRI	<b>300,00</b>
HIRUKIDE/JESUITINAK	<b>500,00</b>
ITURRIZA ELKARTEA.- TOLOSALDEKO HELDUEN ELK.	<b>6.000,00</b>
IZAN FUNDAZIOA.- GIZAKIA HELBURUA	<b>900,00</b>
LASKORAIN IKASTOLA KOOP.	<b>1.775,00</b>
NAGUSILAN	<b>493,00</b>



ODOLEMANILEEN ELKARTEA	<b>300,00</b>
ORIXE BHI	<b>300,00</b>
ORTZADAR ELKARTEA.- ADIMEN LIMITADUNAK	<b>3,600,00</b>
PARROQUIA IURRE.- OSASUN PASTORALTZA	<b>100,00</b>
PARROQUIA STA. MARIA.- OSASUN	<b>100,00</b>
SAMANIEGO HLHI	<b>500,00</b>
TOLOSALDEKO OSASUN PUBLIKOAREN ALDE	<b>300,00</b>
ZUTANI ELKARTEA	<b>847,00</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>39.200,00</b>

**BIGARRENA.**- Ezarrita dauden baldintzak ez betetzeagatik, honako elkarte hauei dirulaguntza ukatzea:

***-Arnasa.- Gipuzkoako Fibrosis Kistikoaren Elkarte***

.

***-Atzegi.- Adimen Urritasun duten pertsonen Elkarte.***

***-Begisare.- Retinosis Pigmentaria duten pertsonen Elkarte.***

***-LAB.- Desgaitasunaren "Egun Internazionale".***

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea taldeei, Gobernu Batzarrari, Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

## **12.- Nazioarteko lankidetza.**

Tolosako Udalak finantziatutako Lan Rover-ran errotuloa jartzeagatik (Tolosako armarrria eta Sahara bizi) Zut enpresak aurkeztu duen faktura ikusita, (93,02) eurokoa, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Tolosaldea Sahararekin Elkarteari 93,02 €-ko dirulaguntza ematea aipatu faktura ordain dezaten.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Politikak eta Osasuna departamentuari eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteari.

### **13.- Bikarte elkartea egin duen dirulaguntzaren eskaera.**

Egoera behartsuan bizi den ume Errusiar edo Bielorusiar bati harrera Tolosan egiteagatik, Gobernu Batzar honek, Gizarte Politikak eta Osasuna batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorri, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Bikarte elkarteari 375€-ko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Bikarte Elkarteari.

### **14.- Beotibar kaleko 3-2. eskubian izandako gertaerangatik faktura onartzea.**

Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egin duen proposamena A.O.G.A.ri diru laguntza emateko Beotibar kaleko 3 2.eskubian izandako gertaera larria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta Alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- A.I.G.A.ri, 575,10€-ko diru laguntza ematea, 2014ko aurrekontuaren gain.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta interesatuari.

**15.- Udal Gobernuaren adierazpena.**

Gaia erabaki gabe geratu da.

**16.- 41 eta 43/2014 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **41/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **74.339,97** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** **41/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **43/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **285.779,46** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** **43/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**